

2023KO URTARRILAREN 18KO OHIKO BILKURA

LEKUA: Mutiloako Udaletxeko Batzar Aretoa

DATA: Bi Mila eta hogeita hiruko urtarrilaren hemezortzian

ALKATE-LEHENDAKARIA: Iñaki Ugalde Alustiza.

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

Asier Aguirre Murguiondo.
Jule Aranburu Mariezkurrena
Erkuden Agirre Arruabarrena.
Aitor de Astobiza Uriarte.
Miren Arantza Oiarbide Perez.
Iñaki Zabalo Etxezarreta.

EZ BERTARATUTAKOAK:

Inor ez.

IDAZKARIA:

Martin Iparragirre Mujika.

BATZARRA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehenengoa

HASIERA ORDUA: Arratsaldeko 19:00etan

AMAIERA ORDUA: Arratsaldeko 20:00etan.

Udal Osoko Bilkura hasi aurretik, idazkari-kontuhartzaileak gogorarazi du gai zerrendako puntuak dagozkien Informazio Batzordeetan diktaminatuta daudela.

GAI ZERRENDA

- **Azken bilkuretako akten onarpena hala badagokio: 2022ko urriaren 5eko Ohiko Bilkurako akta eta 2023ko azaroaren 23ko Ezohiko Bilkurako akta.**

Aipaturiko bi akta aurkezten dira Bilkura honetan onartzeko.
Bozkatu ondoren, aho-batez onartuta geratu dira.

- **Alkatetza ebazpenen berri ematea.**

Udal-kideei aurreko Bilkuratik hona igorritako alkatetza ebazpenen berri eman zaie:

- Alkatetzaren ebazpenak:
 - 2022ko 33 zenbakitik 47 zenbakira.

Udal-kideak jakinaren gainean geratzen dira.

. 2023ko ekitaldiko Udal Aurrekontu espedienteari behin behineko onarpena ematea, hala badagokio.

2023ko Aurrekontu Orokorra:

Joan zen batzorde informatzailean, 2023 Ekitaldiko udal aurrekontuaren proposamenaren berri eman zitzaien udal-kideei.

Gastu eta sarrerei dagokienez, 2023. Ekitaldirako, 655.530,92 euroko aurrekontua aurreikusten da, eta honako hau da kapituluka laburpena:

SARRERAK:

KAPITULUA	EUROK
1.- ZUZENKO ZERGAK	46.150,00
2.- ZEHARKAKO ZERGAK	6.000,00
3.- TASAK ETA BESTELAKO ZERGAK	37.100,00
4.- TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	322.953,00
5.- ONDARE SARRERAK	9.300,00
7.- KAPITAL TRANSFERENTZIAK	234.027,92
DIRUSARRERAK GUZTIRA	655.530,92

GASTUAK:

KAPITULUA	EUROK
1.- PERTSONAL GASTUAK	150.026,85
2., ONDASUN ARRUNTAK ETA ZERBITZUAK	180.122,38
3.- FINANTZA GASTUAK	200,00
4.- TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	67.181,69
6.- INBERTSIO ERREALAK	258.000,00
GASTUAK GUZTIRA	655.530,92

Bestalde aipatu da aurrekontu proiektuaren barne dagoela Udal langileen plantila organikoa eta lanpostu zerrenda.

Gaia aztertu eta eztabaidatu ondoren, Udal-kideek aho-batez honako hau erabaki dute:

LEHENENGOA: Mutiloako udaleko 2023. Ekitaldiko aurrekontua behin-behineko izaeraz onartzea.

BIGARRENA: Aurrekontua jendaurrean jartzea 15 lanegunetan zehar, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko den iragarki baten bidez, interesatuek alegazioak aurkeztu ditzaten.

Adierazitako jendaurreko epea amaitu ondoren inolako erreklamaziorik aurkeztu ez bada, Aurrekontu Orokorra behin betiko onartutzat joko da, horretarako beste erabakirik hartzeko beharrik gabe.

- **Abenduaren 28ko 20/2021 Legeko Egonkortze prozesu barne, Zegamako Udalak hartutako erabakiekin bat egitea, Zegama, Segura, Zerain eta Mutiloako elkartearen Gizarte Langilearen lanpostuari dagokionez, hala badagokio.**

HONAKO HAU IKUSITA:

Mutiloako Osoko Bilkurak, 2022ko maiatzaren 11n egindako ohiko bileran, besteak beste, aho batez, erabaki hauek onartu zituela:

-Zegama, Segura, Zerain eta Mutiloako udalen arteko lankidetzahitzarmena onartzea, gizarte arloetako administrazio zerbitzuetako elkarteak eratzeko eta gizarte langilearen lanpostua elkarrekin mantentzeko; baita elkarte horren estatutuak hasieraz onartzea eta jendaurreko erakustaldian jartzea. Behin eta prozedura amaitu ondoren elkarteak behin-betiko izaeraz eratuta geratu zela.

2022rako Lan Eskaintza Publikoa onartzea eta argitaratzea, honako lanpostua jasoz:

1. Plazaren izena: Gizarte langilea.

- Taldea/Azpitaldea: A2.
- Eskala: Administrazio berezia.

- Azpieskala: Teknikoa.
- Klasea: Erdi-mailako teknikaria.
- Titulazioa: Gizarte zerbitzuetan Diplomaturia edo Gizarte lanetan gradua.
- Maila: 20 D.O. .
- Dediakzioa: % 7,01
- Lanpostua betetzeko era: Lehiaketa.
- Hizkuntza eskakizuna: 3
- Plaza-kopurua: 1.

Plazaren deialdia eta kudeaketa Zegamako Udalaren esku uztea, Segura, Zerain eta Mutiloako udalerrien elkartearen izenean, lanpostua lau udalen izenean betetzeko.

KONTUAN HARTUTA:

Abenduaren 28ko 20/2021 Legeko Egonkortze prozesu barne, Zegamako Udalak onartu dituela oinarri orokor eta espezifikoa, eta deialdia ere egin duela dena Gipuzkoako Foru Aldundiaren kudeaketa-gomendioa formalizatzeko hitzarmenaren arabera.

Hori dena kontuan hartuta, gaia behar adina aztertu eta eztabaidatu ondoren, Udal Osoko Bilkurak, aho batez honako hau,

ERABAKI DU :

BAKARRA:

Abenduaren 28ko 20/2021 Legeko Egonkortze prozesu barne, Zegama, Segura, Zerain eta Mutiloako udalen arteko lankidetzaren hitzarmenaren arabera, gizarte langilearen lanpostua egonkortzeko gaiari buruz Zegamako Udalak hartutako erabakiekin bat egitea.

- **Troi meategi inguruan kokatuta dagoen lursaila bat erosteko proposamena onartzea, hala badagokio.**

IKUSIRIK:

Miguel Baztarrika Aldasoro jauna honako lursailaren jabea dela: "Un terreno castaño y robledal llamado "ALUARBOR" de doscientas sesenta y cuatro áreas y veintidos centiáreas. Confina por Norte, terreno segregado; Sur, con regata y terreno de la villa; Este, con la misma regata y con finca de

Catalina Goya; y Oeste, con camino y terreno de la Casería Apaolaza de Felipe Telleria y además con finca de la Compañía minera. En la regata lindante al Sur de este terreno existe una escombrera de la cual el dueño que sea de la primera mitad de los molinos llamado Troy podrá extraer la piedra que necesita para construcciones.

Jabego Erregistroko ondorengo finkan jasota dagoela:

Tomo 527

Liburua 12

Folioa: 58

Finka zenbakia 457.

Inskripzioa: 5.ena.

Katastroko erreferentzia: Poligonoa: 9, Partzela 13 (partziala).

Mutiloako Udalak aipaturiko lursailetik honako deskribapena duen lursail bat erosi nahi duela:

RUSTICA.- Porción de terreno de una superficie de diez mil metros cuadrados (10.000 m²). Confina por Norte, Este y Oeste, con resto de finca matriz y por Sur, con regata y terreno de la villa.

Gainerako lursaila honela geratzen dela:

RUSTICA.- Un terreno castañal y robledal llamado "ALUARBOR", de ciento sesenta y cuatro áreas y veintidós centiáreas. Confina por Norte, terreno segregado; Sur, con porción segregada y ésta con regata y terreno de la villa; Este, con la misma regata y finca de Catalina Goya; y Oeste, con camino y terreno de la Casería Apaolaza de Felipe Telleria y además con finca de la Compañía Minera. En la regata lindante al Sur de este terreno existe una escombrera de la cual el dueño que sea de la primera mitad de los molinos llamados Troy podrá extraer la piedra que necesite para construcciones.

Hasiera batean 9.228 m²ko lursaila erosi nahi bazen ere, azkenean 10.000 m²ko lursaila erostea onartu dela, bereizketarekin arazorik ez izateko.

KONTUAN HARTUTA:

2022 urtean Mutiloako Udalak Eusko Jaurlaritzako "Natura ondarea eta biodibertsitatea" deituriko diru laguntza programan diru laguntza eskaera aurkeztu zuela eta egin beharreko aktuzioak erosiko den lursailean kokatzen direla, eta horregatik erosteko prozedura honek betetzen duela tokiko erakundeen kontratazio arautegian eta ondasunak erosteko arautegian xedatutakoa.

Ordaindu beharreko prezioari buruz, 2022-10-05eko datan Balkide Balorazioak S.A.M. enpresak egindako tasazioa, eta azkenean m2ko 0,60 euroko prezioa adostu dela, eta ordainketa eskritura publikoak sinatu aurretik egingo dela.

Mutiloako Udaleko 2023ko aurrekontuko dagokion partidan badagoela nahiko kreditua gastu honi aurre egiteko.

Bereizketa baimena emateko, lursail honek betetzen dituela indarrean dagoen arautegian aurreikusitako baldintza guztiak, eta horregatik erabaki honen barne bereizketa baimena ere jasoko dela.

Hori dena kontuan hartuta, gaia behar adina aztertu eta eztabaidatu ondoren, Udal Osoko Bilkurak, aho batez honako hau,

ERABAKI DU :

LEHENENGOA:

Erosketa egin ahal izateko, beharrezkoa den bereizketa baimena ematea.

BIGARRENA:

Aipaturiko Troi inguruko lursaila erostea, baldintza hauetan:

- Prezio osoa: $10.000 \times 0,60 = 6.000,00$ euro, eta ordainketa eskritura sinatu aurretik egingo da.

HIRUGARRENA:

Mutiloako Udal Ondasun Inbentarioan, "Ondasun Patrimonial" izaerako bezala jasotzea lursaila.

LAUGARRENA:

Mutiloako Udaleko alkatea den Iñaki Ugalde Alustiza jaunari ahalmena ematea, erabaki honi buruz edozein dokumentu publiko nahiz pribatua sinatzeko.

- **Mutiloako Udal eraikin eta lokalen garbiketa zerbitzua lizitatzeko Baldintza Ekonomiko-Administratibo Zehatzen agiria onartzea, hala badagokio.**

IKUSIRIK:

2022ko uztailaren 12ko 20-2022 zenbakidun Alkatetzaren Dekretuaren bitartez erabaki zela: Limpedur S.L. enpresari Udal eraikinen garbiketa zerbitzua programa kudeatzeko obra kontratu txikia esleitzea, 2022-06-06ko proposamenaren arabera eta esleipen prozedura irekia egiten den bitarteko epealdirako.

Dagoeneko prestatuta daudela, Baldintza Ekonomiko-Administratiboen eta Tekniko zehatzen agiriak zerbitzua lizitaziora ateratzeko.

KONTUAN HARTUTA :

Prestatutako agiriak, besteak beste, ezaugarri hauek dituela :

- Kontratuaren xedea : «UDAL ERAIKIN ETA LOKALEN GARBIKETA ZERBITZUAK” .
- Prozedura mota: Ireki erraztua.
- Kontratuaren oinarritzko prezioa : 23.191,34 euro urtean (BEZ barne).
- Eskaintzak aurkezteko epea : Iragarkia Kontratazio profilean argitaratu eta hurrengo 15 egun naturaletan.
- Badagoela aurrekontuan nahiko kreditua gastu honi aurre egiteko.

Hori dena kontuan hartuta, gaia aztertu eta eztabaidatu ondoren, Udal Osoko Bilkurak, aho batez, honako hau,

ERABAKI DU :

BAKARRA :

Aurkeztutako Baldintza Ekonomiko-Administratibo eta Teknikoen agiriak onartzea, eta lizitazio prozedura abian jartzea araututa dagoen eran.

- **Onura publikoko mendiko lursailetatik egurra ateratzeko jasotzen diren eskaerak Foru Aldundira bideratzeko eta eskaera aztertu ondoren berak dagokion tasa ezartzeko proposamena onartzea, hala badagokio.**

HONAKO HAU IKUSITA:

Mutiloako Udalak ordenantza bat onartuta duela non esaten duen: "Egurra ateratzen hasi aurretik, dagokion baimen eskaera aurkeztu beharko da, eta Udaletxean 3.000,00 euroko fidantza aurkeztu beharko da.

KONTUAN HARTUTA:

Aizpuru inguruko onura publikoko mendiko Zerain eta Legazpiko lursailetatik egurra ateratzeko erabiltzen den Mutiloako bide publikoaren kasurako posible dela, egurra ateratzeko bidea erabiltzeko eskaerak Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendiak eta Habitatak kudeatzeko zerbitzura bideratzea honek dagokion tasa ezartzeko.

Hori dena kontuan hartuta, gaia behar adina aztertu eta eztabaidatu ondoren, Udal Osoko Bilkurak, aho batez honako hau,

ERABAKI DU :

BAKARRA :

Aizpuru inguruko onura publikoko mendiko Zerain eta Legazpiko lursailetatik egurra ateratzeko erabiltzen den Mutiloako bide publikoaren kasurako, egurra ateratzeko bidea erabiltzeko eskaerak Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendiak eta Habitatak kudeatzeko zerbitzura bideratzea honek

dagokion tasa ezartzeko eta erabaki honen berri aipaturiko zerbitzuari jakinaraztea.

- **Errotatxo proiektuaren barne "LURLAB MOBILE" proiektua garatzeko Food Hack Lab elkartearekin adostutako hitzarmena onartzea, hala badagokio.**

HONAKO HAU IKUSITA:

Food Hack Lab elkarteak kudeatzen duen "LURLAB MOBILE" proiektuak laborategi digital berri bat eraiki eta landa eremuko herrietan zehar bere jarduera zabaltzeko xedea duela.

Elkarte honek Mutiloako Udalari proposatutako "LURLAB MOBILE" proiektuak Mutiloako Udalaren oniritzia jaso duela.

KONTUAN HARTUTA:

Proiektua garatzeko elkarteak luzatutako lankidetzaren hitzarmena, non laburbilduta ezaugarri hauek dituen:

- Udalak proiektuaren gastuetarako kontribuzio gisa, 5.000,00 euroko ekarpena egingo dio proiektuari.
- Udalak bere kargura hartuko ditu proiektua garatzeko aproposa izango den lekua eskaintzea (Errotatxon kokatuko da) eta honek sor ditzakeen gastuen kargu egitea, besteak beste, ura, argindarra, berogailua, aire egokitua, internet konexioa, aurrez eta ondoren garbitzea, eta abar.

Gastu honi aurre egiteko badagoela nahiko kreditua 2023ko aurrekontuan.

Hori dena kontuan hartuta, gaia behar adina aztertu eta eztabaidatu ondoren, Udal Osoko Bilkurak, aho batez honako hau,

ERABAKI DU :

LEHENENGOA:

Food Hack Lab elkarteak luzatutako lankidetzaz hitzarmena onartzea aurkeztu den eran.

BIGARRENA:

Sinatzeko ahalmena alkate den Iñaki Ugalde Alustiza jaunari ematea.

- **On-line erosketak egiteko, Kutxabank txartela atera denaren berri ematea eta bere kasuan erabakia berrestea.**

Kontuan hartuta Udaleko Kontu Batzordeko bileran Mutiloako udalaren izenean, ezaugarri hauek dituen Kutxako txartela eskatzeko beharra ikusi zela

- Txartelaren erabiltzailea: Iñaki Ugalde Alustiza (Alkatea)
- Txartelaren beharraren justifikazioa: On-line erosketak ordaintzeko eta egiten den ordainketa bakoitza Udal Osoko Bilkuraren jakinean jarriko da.

Udal Osoko Bilkurak aho batez berretsi du hartutako erabakia, azpimarratzen da berriro txartel horrekin egiten den ordainketa bakoitza Udal Osoko Bilkuraren jakinean jarri beharko dela.

. 3.000 eurotik goragoko fakturen onarpena.

- Ondoren adierazitako faktura hauen ordainketa aho-batez onartu da:

1	ARTETXE HONDALANAK (IÑAKI LIZARRIBAR)	29.800,00 euro.
2	ARTETXE HONDALANAK (IÑAKI LIZARRIBAR)	8.273,25 euro.
3	NAZARTEK AHOLKULARITZA S.L.	4.114,00 euro.
4	KLARA GOROSABEL ZALDIBIA	6.384,00 euro.
5	ARTETXE HONDALANAK (IÑAKI LIZARRIBAR)	8.482,22 euro.
6	SEGURAKO UDALA	7.264,26 euro.
7	SEGURAKO UDALA	7.448,94 euro.
8	VALENZUELA GARCIA MERCEDES	3.148,20 euro.
9	KLARA GOROSABEL ZALDIBIA	6.384,00 euro.
10	EUTSI CARPINTERIA ALUMINIO	5.507,92 euro.
11	EXCAVACIONES GABIRI S.L.	30.571,13 euro.

12	EXCAVACIONES GABIRI S.L.	27.926,80 euro.
----	--------------------------	-----------------

- **GALDE-ERREGUAK**

Ez daude.

Eztabaidatzeko gai gehiago ez dagoenez, Bilkura amaitutzat ematen da arratsaldeko 20:00ak direnean eta horren fede, nik idazkariak ematen dut.

Nik, Martin Iparragirre Mujikak, Gipuzkoa Lurralde Historikoko Mutiloako Udaleko idazkari-kontuhartzaileak,

Z I U R T A T Z E N D U T :

Udal Osoko Bilkurak, 2023ko urtarrilaren 18an eginiko ohiko batzarrean, besteak beste, letraz letrazko erabaki hau onartu zuela:

TROI MEATEGI INGURUAN KOKATUTA DAGOEN LURSAIL BAT EROSTEKO PROPOSAMENA ONARTZEA.

IKUSIRIK:

Miguel Baztarrika Aldasoro jauna honako lursailaren jabea dela: "Un terreno castañal y robledal llamado "ALUARBOR" de doscientas sesenta y cuatro áreas y veintidos centiáreas. Confina por Norte, terreno segregado; Sur, con regata y terreno de la villa; Este, con la misma regata y con finca de Catalina Goya; y Oeste, con camino y terreno de la Casería Apaolaza de Felipe Telleria y además con finca de la Compañía minera. En la regata lindante al Sur de este terreno existe una escombrera de la cual el dueño que sea de la primera mitad de los molinos llamado Troy podrá extraer la piedra que necesita para construcciones.

Jabego Erregistroko ondorengo finkan jasota dagoela:

Tomo 527

Liburua 12

Folioa: 58

Finka zenbakia 457.

Inskripzioa: 5.ena.

Katastroko erreferentzia: Poligonoa: 9, Partzela 13 (partziala).

Mutiloako Udalak aipaturiko lursailatik honako deskribapena duen lursail bat erosi nahi duela:

RUSTICA.- Porción de terreno de una superficie de diez mil metros cuadrados (10.000 m²). Confina por Norte, Este y Oeste, con resto de finca matriz y por Sur, con regata y terreno de la villa.

Gainerako lursaila honela geratzen dela:

RUSTICA.- Un terreno castañal y robledal llamado "ALUARBOR", de ciento sesenta y cuatro áreas y veintidós centiáreas. Confina por Norte, terreno segregado; Sur, con porción segregada y ésta con regata y terreno de la villa; Este, con la misma regata y finca de Catalina Goya; y Oeste, con camino y terreno de la Casería Apaolaza de Felipe Telleria y además con finca de la Compañía Minera. En la regata lindante al Sur de este terreno existe una escombrera de la cual el dueño que sea de la primera mitad de los molinos llamados Troy podrá extraer la piedra que necesite para construcciones.

Hasiera batean 9.228 m²ko lursaila erosi nahi bazen ere, azkenean 10.000 m²ko lursaila erostea onartu dela, bereizketarekin arazorik ez izateko.

KONTUAN HARTUTA:

2022 urtean Mutiloako Udalak Eusko Jaurlaritzako "Natura ondarea eta biodibertsitatea" deituriko diru laguntza programan diru laguntza eskaera aurkeztu zuela eta egin beharreko aktuzioak erosi den lursailean kokatzen direla, eta horregatik erosteko prozedura honek betetzen duela tokiko erakundeen kontratazio arautegian eta ondasunak erosteko arautegian xedatutakoa.

Ordaindu beharreko prezioari buruz, 2022-10-05eko datan Balkide Balorazioak S.A.M. enpresak egindako tasazioa, eta azkenean m²ko 0,60 euroko prezioa adostu dela, eta ordainketa eskritura publikoak sinatu aurretik egingo dela.

Mutiloako Udaleko 2023ko aurrekontuko dagokion partidari badagoela nahiko kreditua gastu honi aurre egiteko.

Bereizketa baimena emateko, lursail honek betetzen dituela indarrean dagoen arautegian aurreikusitako baldintza guztiak, eta horregatik erabaki honen barne bereizketa baimena ere jasoko dela.

Hori dena kontuan hartuta, gaia behar adina aztertu eta eztabaidatu ondoren, Udal Osoko Bilkurak, aho batez honako hau,

ERABAKI DU :

LEHENENGOA:

Erosketa egin ahal izateko, beharrezkoa den bereizketa baimena ematea.

BIGARRENA:

Aipaturiko Troi inguruko lursaila erostea, baldintza hauetan:

- Prezio osoa: $10.000 \times 0,60 = 6.000,00$ euro, eta ordainketa eskritura sinatu aurretik egingo da.

HIRUGARRENA:

Mutiloako Udal Ondasun Inbentarioan, "Ondasun Patrimonial" izaerako bezala jasotzea lursaila.

LAUGARRENA:

Mutiloako Udaleko alkatea den Iñaki Ugalde Alustiza jaunari ahalmena ematea, erabaki honi buruz edozein dokumentu publiko nahiz pribatua sinatzeko.

Eta horrela jasota gera dadin, eta bere ondorioak sor ditzan, luzatu dut presidente jaunak agindu eta ontzat emanik.

Mutiloa, 2023ko urtarrilaren 18a

O.E.
ALKATEA

Martin Iparragirre Mujika, Secretario-Interventor del Ayuntamiento de Mutiloa, del Territorio Histórico de Gipuzkoa,

CERTIFICO:

Que el Ayuntamiento Pleno, en sesión ordinaria celebrada en fecha 18 de enero de 2023 adoptó, entre otros, el acuerdo que se transcribe a continuación:

PROPUESTA DE APROBACION DE COMPRA DE UN TERRENO UBICADO EN INMEDIACIONES DE LA MINA TROI.

VISTO:

Que el Sr. Miguel Baztarrika Aldasoro es propietario de la siguiente finca: "Un terreno castañal y robledal llamado "ALUARBOR" de doscientas sesenta y cuatro áreas y veintidos centiáreas. Confina por Norte, terreno segregado; Sur, con regata y terreno de la villa; Este, con la misma regata y con finca de Catalina Goya; y Oeste, con camino y terreno de la Casería Apaolaza de Felipe Telleria y además con finca de la Compañía minera. En la regata lindante al Sur de este terreno existe una escombrera de la cual el dueño que sea de la primera mitad de los molinos llamado Troy podrá extraer la piedra que necesita para construcciones.

Que registralmente se trata de la siguiente finca:

Tomo 527

Libro 12

Folio: 58

Nº Finca 457.

Inscripción: 5ª

Referencia catastral: Polígono: 9, Parcela 13 (parcial).

Que el Ayuntamiento de Mutiloa de la finca descrita, desea adquirir la finca que se describe a continuación:

PORCION SEGREGADA: RUSTICA.- Porción de terreno de una superficie de diez mil metros cuadrados (10.000 m²). Confina por Norte, Este y Oeste, con resto de finca matriz y por Sur, con regata y terreno de la villa.

RESTO DE FINCA MATRIZ

RUSTICA.- Un terreno castañal y robledal llamado "ALUARBOR", de ciento sesenta y cuatro áreas y veintidós centiáreas. Confina por Norte, terreno segregado; Sur, con porción segregada y ésta con regata y terreno de la villa; Este, con la misma regata y finca de Catalina Goya; y Oeste, con camino y terreno de la Casería Apaolaza de Felipe Telleria y además con finca de la Compañía Minera. En la regata lindante al Sur de este terreno existe una escombrera de la cual el dueño que sea de la primera mitad de los molinos llamados Troy podrá extraer la piedad que necesite para construcciones.

Que si en un principio se quería adquirir una finca de 9.228 m², para no tener problema con la licencia de segregación, finalmente la finca a adquirir tendrá un total de 10.000 m².

TENIENDO EN CUENTA:

Que el Ayuntamiento de Mutiloa durante el año 2022 ha presentado una solicitud de subvención dentro del programa "Patrimonio Natural y Biodiversidad" del Gobierno Vasco, y la actuación a realizar se circunscribe dentro del terreno que se pretende adquirir y por lo tanto esta compra cumple con lo establecido en la legislación de contratación y compra de bienes de las Entidades Locales.

En cuanto al precio a satisfacer, la tasación realizada por la empresa Balkide Balorazioak S.A.M., y que finalmente se ha acordado en 0,60 euros por m²., y que el pago se realizará previa la firma de las escrituras públicas.

Que en el presupuesto del Ayuntamiento de Mutiloa del año 2023 existe crédito suficiente para hacer frente a este gasto en su partida correspondiente.

Que a efectos de conceder licencia de segregación, esta parcela cumple todos los requisitos exigidos en la Legislación vigente, por lo que dentro de este acuerdo se incluirá también la licencia de segregación.

Teniendo en cuenta todo lo expuesto, tras ser debatido el tema, el Pleno por la unanimidad de los Corporativos, ha adoptado el siguiente,

ACUERDO:

PRIMERO:

Conceder la licencia de segregación de dicha finca en la forma descrita, con el fin de proceder a su compra.

SEGUNDO:

Aprobar la compra del terreno mencionado en las siguientes condiciones:

- Precio total: $10.000 \times 0,60 = 6.000,00$ euros, debiéndose realizar el pago previa la firma de las escrituras públicas.

TERCERO:

Incluir dicha finca en el inventario de bienes del Ayuntamiento de Mutiloa, con carácter de "Bien Patrimonial".

CUARTO:

Facultar al Sr. Alcalde del Ayuntamiento de Mutiloa Iñaki Ugalde Alustiza, para la firma de cuantos documentos públicos o privados sean necesarios en relación con esta adquisición.

Y para que conste, a los efectos oportunos, extendiendo la presente certificación de orden, y con el Visto Bueno del Sr. Alcalde.

Mutiloa, 18 de enero de 2023

Vº Bº

EL ALCALDE

Nik, Martin Iparragirre Mujikak, Gipuzkoa Lurralde Historikoko Mutiloako Udaleko idazkari-kontuhartzaileak,

Z I U R T A T Z E N D U T :

Udal Osoko Bilkurak, 2023ko urtarrilaren 18an eginiko ohiko batzarrean, besteak beste, letraz letrazko erabaki hau onartu zuela:

- **Onura publikoko mendiko lursailetatik egurra ateratzeko jasotzen diren eskaerak Foru Aldundira bideratzeko eta eskaera aztertu ondoren berak dagokion tasa ezartzeko proposamena onartzea, hala badagokio.**

HONAKO HAU IKUSITA:

Mutiloako Udalak ordenantza bat onartuta duela non esaten duen: "Egurra ateratzen hasi aurretik, dagokion baimen eskaera aurkeztu beharko da, eta Udaletxean 3.000,00 euroko fidantza aurkeztu beharko da.

KONTUAN HARTUTA:

Aizpuru inguruko onura publikoko mendiko Zerain eta Legazpiko lursailetatik egurra ateratzeko erabiltzen den Mutiloako bide publikoaren kasurako posible dela, egurra ateratzeko bidea erabiltzeko eskaerak Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendiak eta Habitatak kudeatzeko zerbitzura bideratzea honek dagokion tasa ezartzeko.

Hori dena kontuan hartuta, gaia behar adina aztertu eta eztabaidatu ondoren, Udal Osoko Bilkurak, aho batez honako hau,

ERABAKI DU :

BAKARRA :

Aizpuru inguruko onura publikoko mendiko Zerain eta Legazpiko lursailetatik egurra ateratzeko erabiltzen den Mutiloako bide publikoaren kasurako, egurra ateratzeko bidea erabiltzeko eskaerak Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendiak eta Habitatak kudeatzeko zerbitzura bideratzea honek dagokion tasa ezartzeko eta erabaki honen berri aipaturiko zerbitzuari jakinaraztea.

Eta horrela jasota gera dadin, eta bere ondorioak sor ditzan, luzatu dut presidente jaunak agindu eta ontzat emanik.

Mutiloa, 2023ko urtarrilaren 18a

O.E.
ALKATEA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA
MENDIAK ETA HABITATAK KUDEATZEKO ZERBITZUA
BIXENTE DORRONSORO
GIPUZKOAKO PLAZA.
DONOSTIA.